

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Zer egingo dugu gure produktu eta zerbitzuak bezeroengana iristeko?

- Komunikazio kanalak:

Gure produktuak ezagutzera eramateko, interneten web gune bat irekiko dugu, zeinetan aurretiaz erregistratu diren emakumeen* gure produktuak ikusteko aukera izango duen, gure katalogoa ikusteko bere osotasunean. Horrez gain, gure lokalean ere gure produktuak ikusteko aukera izango dute, katalogoan, zein produktu bakoitzaren prototipoa bera, ukitu eta hartu ahal izango dutena. Emakume* elkarte edo taldeekin ere harreman zuzena izango dugunez, haien partaideei zuzenean gure produktuen berri emateko aukera egongo da, bai eta gure lokalean emango ditugun tailer ezberdinen berri ere.

- Banaketa kanalak:

Lokalean bertan erosi ezkerro, eskura emango diogu produktua gure bezeroari. Internet bitartez erosi ezkerro, etxera bidaliko diogu postaz.

- Salmenta kanalak:

Internet bidez erosteko aukera egongo da, baita gure lokalean bertan presentzialki.

Bezeroekiko harreman guneak:

- Pertzepzioa:

Gure produktu eta zerbitzuen berri, gure lokalean informazio guztia izango dute eskura. Internet bidez ere gure web gunean informazio parte bat ere publikatuko dugu. Kartel informatibo ezberdinak egingo ditugu lantzen ari garen gaien inguruan, gure jardunaren berri emateko eta gure produktuak aurkeztu ahal izateko.

Bestalde, uste dugu ere, emakumeek* haien artean honen berri emango dutela, partekatuz beste emakume* batzuekin zerbitzu zein produktuak, gure enpresaren berri emanez.

Argi utzi nahi dugu gure helburua ez dela emakumeen beldur eta beharretatik dirua ateratzea, baizik eta haien arrisku egoerari aterabide bat eskaintzea, hots laguntza ematea ahalduntzeko.

Baldintza espezifikoak egongo dira internet bitartez eskuratu ahal izateko. emakumeentzako soilik izanki, identifikazio bat eskatu du, aurretiaz erregistratu behar izango dena.

